

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	DANOBAT KOOPERATIBA
2. Sektorea:	MAKINA-ERREMINTA
3. Langile kopurua:	400
4. Webgunea:	www.danobatgroup.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>DANOBATen makina-erremintak, giltza eskura erako lerroak eta aplikazio espezifikoetarako soluzio aurreratuak garatzen eta hornitzen ditugu, goi teknologiko sektoreei eta baldintza tekniko zorrotzak eskatzen dituzten bezeroei zuzenduta.</p> <p>Hau da, azkenean, gure eskaintza: makina aurreratuak, doitasun, fidagarritasun eta produktibitate handia bermatzen dutenak eta mekanizazio prozesurik zorrotzeneri aurre egiteko diseinatuta daudenak; soluzio aurreratuak, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako, bere sektorean liderrak diren enprekin elkarlan estuan arituta garatutakoak eta soluzio erabat automatizatuak eta giltza eskura erako lerroak ematen dituztenak; eta zerbitzu aurreratuak, informazio eta komunikazioko teknologiarik modernoenetan oinarritutakoak.</p> <p>Batez ere atzerriko enpresa pribatuei saltzen dizkiegu gure makinak, mundu osoan.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	JON MUGARTEGI ARANBARRI
Helbide elektronikoa:	jmugartegi@danobat.com
Telefonoa:	+34 943 74 80 44

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara Planaren barne-komunikazioa: <ul style="list-style-type: none">• Euskara Batzordetik organoetara eta kolektibora• Euskara Hutsezko kanala• Txirbil berripapera
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Euskara planak barne-komunikaziorako hainbat kanal erabiltzen ditu: Harrera planak, Kontseilu Soziala + Kontseilutxoak, Batzar nagusia, Hitzaldi informatiboak, Txirbil berripapera, Emaila, Organoetan deskarguak, Ahoz ahozkoa... Etengabeko komunikazioaren helburua da euskara planetik urrun daudenak hurbiltzea eta kolektiboaren feedbacka sustatzea. Fitxa honetan, ohikoak diren 3 kanal deskribatu dira: <ol style="list-style-type: none">1. Informazioa Euskara Batzordetik Kontseilu Sozialera eta kolektibora Kontseilu Soziala kooperatiba izaera duten erakunde askotan dagoen organo soziala da eta bertan parte hartzen dute kontseilariak erakundeko langile guztiak ordezkatzen dituzte. Hilean behin Kontseilu Sozialaren bilera egiten da eta ondoren kontseilari bakoitza arduratzen da jasotako informazioa bere kontseilutxora eramateaz. Euskara Batzordean hileroko erabakitzen da zein informazio eraman Kontseilu Sozialera. Kontseilu Sozialeko gai-zerrendan euskararen gaia finkoa da. Informazio horren azalpena lehendakariak edo Euskara Batzordeko ordezkariak ematen du. Ondoren, Kontseilu Sozialeko kontseilari bakoitzak bere kontseilutxora eramaten du informazioa. Bide honetatik ziurtatzen da informazioa langile guztiengana iristen dela. 2. Euskara Hutsezko kanala Mezu orokorrak bidaltzeko zein dokumentazio pertsonalizatua banatzeko bi kanaletako formula martxan daukagu 2017ko urtarrilaz geroztik. Euskara ulertzen duten langileek (langileen %93) informazio eta komunikazio pertsonala euskaraz soilik jasotzen dute eta ulertzen ez dutenek (%7) ele bitan jasotzen dute.

Helbide elektronikoko *Danobat Kideak* taldea, bi taldetan banatuta dago:

Danobat_Kideak_eus (euskara ulertzen dutenak): Talde honetan dauden kideek euskaraz jasotzen dituzte mezu elektronikoak.

Danobat_Kideak_elebi (euskara ulertzen ez dutenak): Talde honetan dauden kideek ele bitan (euskaraz/gaztelaniaz) jasotzen dituzte mezu elektronikoak.

Taldeen hasierako banaketa langile bakoitzaren ezagutzaren arabera egin zen. Orain langile berri guztiak euskarako taldean sartzen dira. Ulertzen ez duen norbait dagoenean, ele bitako taldean sartzen da.

Barne komunikazioetarako hizkuntza irizpidea eta prozedura jasota eta onartuta dago.

Praktika hau Danobatgroupeko beste kooperatibetan ere martxan dago.

3. Txirbil berripapera

Kontseilutxoen bidez, taldeka osatzen den barne- berripapera da, euskara hutsean egiten dena. Gaiak anitzak izaten dira eta elkarrizketak, artikulua zein argazkiak jasotzen ditu.

Urte hasieran onartzen dute kontseilariak bakoitzari alea osatzea dagokion hilabetea zein izango den. Kontseilariaren lana da bere taldekideekin berripapererako artikulua eta argazkiak prestatzea. Ondoren, Euskara zerbitzua arduratzen da prestatutako artikulua maketatzeaz eta erakunde barruan zabalkundea egiteaz.

Hilero argitaratzen da eta zabalkundea emailaz egiten zaio kolektibo osoari.

Euskara Batzordetik sustatutako ekimen honek, enpresa osoaren parte-hartzea eta zabalkundea izatea lortu du (2001an hasita, 210 aletik gora argitaratu dira).

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Apirileko Kontseilu Soziala: 2021eko EUSKARAREN GESTIO PLANA



2021-2024ko euskararen Plan Estrategikotik eratorritako 2021eko Gestio Planeko helburu nagusiak:

1. Kolektiboak euskara planeko helburuak barneratzea (komunikazioa)

- Euskara planaren komunikazioa hobetzeko plana diseinatuko dugu
- Euskara planean parte hartzen duten eragile ezberdinen arteko koordinazioan urratsak egingo ditugu: Euskara Batzorde, eragile sare, arduradun eta kontseilarien elkarlanerako ekintza plana zehaztuko dugu.

2. Euskara ulertzen duten taldeetan euskaraz egitea (erabilera)

- Danobateko proiektu nagusietan hizkuntzen kudeaketa egiteko proposamenak landuko ditugu eta lorpenen zabalkundea egingo dugu
- Euskararen ulermena ziurtatuta duten bileretan eragiteko lehentasunak markatuko ditugu eta hilerro jarraipena egingo diegu erabilera datuei.
- Euskararen ezagutza datuak Danobateko antolaketa-mapan kokatzea eta euskararen arnasguneak identifikatzea.



DANOBTGROUP

Helbide-liburua: Offline Global Address List

Fitxategia Editatu Tresnak

Bilatu: Izena soilik Zutabe gehiago Helbide-liburua


danobat kide| Joan Offline Global Address List - euskara@dan Bilaketa aurreratu

Izena	Titulua	Laneko telefonoa	Kokalekua	Sai
Danobat Kideak				
Danobat Kideak_Elebi				
Danobat Kideak_Eus				
Danobat Lantegia 1				
Danobat Lantegia 4				
Danobat Lantegia 5				
Danobat Lizundia			ZERBITZU INDUSTRIA...	
Danobat Logistika				
Danobat Montaje Partzialak				
Danobat Newalleko Kideak				
Danobat Notificar Ofertas Tornos				
Danobat Oficina Tecnica Estarta				
Danobat Oficina Tecnica Mecani...				
Danobat Overbeck Technology				
Danobat Parking-1				
Danobat Parking-10				
Danobat Parking-2				

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA